

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



*Ilun.*  
Soilik.  
Baga-Biga.  
Iraupena: 40'15".  
11,50 euro.

## Tristura eta iluntasuna plazaratzeko goxotasun misteriotsua

BILBON BARREIATUTAKO musikariek osatzen dute Soilik taldea eta enborra death-metalean eskarmentu handia daukan Conflict Noise taldean dauka. Hain zuzen ere, banda horren atsedena bide batean musika lasaiagoa egitea pentsatu zuten, eta lanean hasi zirenean konturatu ziren emaitza ilunak lortzeko bestelako moduak ere bazeudela. Horretarako oinarritzkoa izan zen Miriam abeslaria taldera batzea. Giro

berezi, ilun eta intimoak gailu izatetik helburu izatera pasa dira. Pertsonalitate handiko eta goxotasun misteriotsuko ahotsei gitarra rockero zein heavy-sinfonikoak batu dizkiote, baita tarteka erritmo metaleroak ere; beti malenkoniak jantzitako melodiaz borobilduta, noski. Hala, soilik proiektua zen Soilik erronka baino askoz gehiago bihurtu da, orain arte emozioak indarrez plazaratzen zituzten musikarientzako.

### Soilik

## «Giro ilunak lortu ditugu bestelako ahots bati eta hitzen malenkoniari esker»



Ortiz, Miriam, Jabi eta Margok osatzen dute Soilik taldea.

Hainbat kazetarik Anatema, Paradise Lost eta halako taldeekin parekatu zaituzte, baina nik esango nuke egiten duzuenaren rocketik hurbilago dagoela.

Soilik sortu genuenean talde horiei erreparatu genien, baina harago jo dugu, gure estilo propioa. Aipatu dituzun taldeak eta beste batzuk death-etik datoz eta doom-metala egiten dute ezdarri askoko ahotsekin. Guk talde horien iluntasuna ere badugu, hori ezinbestekoa da; baina bestelako ahots batekin eta hitzetan tristura

eta malenkonia landuz, bestelako giroak lortu ditugu. Horretan dihardugu. Iluntasunetik gauzak argiago ikusten dituzue?

Gai horien gainean idazten dugu guretzat barruak askatzeko modua delako. Horrek ez du esan nahi jende tristea garenik. Beste batzuek maitasunaren gainean etengabe idazten dute eta ez dute beti hori bizi izaten. Jende normala gara. "Fabriketako keak zerua lainotu du, iraganeko historia erail du". Garape-  
nak ahaztarazi egiten du izan garena?

Bai. Denborarekin bizitzeko modu arrunta ahaztuz goaz. Gero eta konplexuagoa eta zailagoa da bizitzea. Garapenarekin kritikoak gara.

Zerk emango lioke poza Besi tristuraren erreginari?

Behin irratian entzun genuen Getxoko amildegi batean neska batek bere buruaz beste egin zuela, eta bera gogoan genuela idatzi genuen abestia.

"Maia", "Lurraren mezua", "Deabruarekin dantzan", "Mamuak"... Antzina-ko kultura paganoa aldarrikatzen duzue, kristautasunaren aurrekoa?

Maia esaten diote batzuk Mariri. Inkisizioa oso presente dago gure hitzetan eta mitologia eta jakinduria zaharrak asko gustatzen zaizkigu, baina ez gara paganoak.

Diskoak oso soinu garbia eta gardena dauka...

Bai. Saiatu gara instrumentu guztiak ondo entzun eta bereiztu daitezten. Gu death-metaletik gatoz eta erronka izan da halako musika egitea. Izan ere, orain idazten gabiltzan kantuetan soinua are eta gardena goa da. ■